

EKOLOGIA. Zabortegira eraman beharrean, organikoak konposta egiteko erabili daitezkeela diote ekologistek

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Hego Euskal Herriko administrazioek birziklapenaren gaia ez dutela behar bezala zaintzen salatu zuten, atzo, Rezikletak eta Ekologistak Martxan elkarteek. Hori erakusteko, tokian tokiko administrazioek esku artean darrabiltzaten datuekin txostena landu du Rezikletak. Josetxo Gonzalez Rezikletako kideak azpimarratu zuenez, bereziki adierazgarria da hondakin organikoen alorrean egiten den politika. Gonzalezek aipatu zuen biltzen diren zakarren %39 inguru hondakin organikoak direla, baina horiek ez direla birziklatzen, «batez ere hondakin horiek jatorrian bereizteko aukerarik ez zaielako eskaintzen herritarrei».

Hondakinen arazoa konpontzeko, oinarria jo behar dela pentsatzen dute Rezikletakoek eta Ekologistak Martxan-ekoek. «Erakunde publikoek ez dute birziklapen politika egokia egiten. Eta oraindik eta txarragoa dena: herritarrek sortzen duten hondakin kopurua gutxitzeko ere ez dute kanpainarik egiten. Gero, esaten digute zabortegiak gainezka daudela eta errausteko plantak egin behar direla», agertu zuen Txelio Alcantara Ekologistak Martxan-eko kideak. Izan ere, 1993an herritar batek 320 kilo zabor sortzen zituen urtean; 2001ean, oster, 423 kilo hondakin eragin zituen herritar bakoitzak, batez beste.

Rezikletak eginiko azterketaren beste datu batzuk ere nabarmendu zituzten Gonzalezek eta

Hondakin organikoak ez direla birziklatzen salatu dute talde ekologistek

Hego Euskal Herrian zaborren %39 organikoak direla dio Rezikletak



JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Gordexolako zabortegia, Bizkaian.

Alcantarak. Besteak beste, azkeneko sei urteetan birziklatu diren hondakinen kopurua %2 hazi dela esan zuen Gonzalezek, edo birziklatzen dena hondakinen %17 baino ez dela salatu. «Ontzi horiak direla-eta egin dituzten kanpainak birziklapen

mailari eusteko baino ez dute balio izan», gaineratu zuen.

Erraustekoak ez, konposta bai

Alcantarak agertu zuenez, talde ekologistak arduratuta daude Bizkaian eta Gipuzkoan egin nahi dituzten erraustekoak dire-

la-eta. Ekologistak Martxan-eko kideak azaldu zuen zergatik ez diren beharrezkoak errausteko plantak: «Sortzen den hondakinen erdia ez dute birziklatzen, zuzenean bidaltzen dutelako zabortegira. Hori sekulako astakeria da, oinarritzko mate-

JARDUNALDIAK

«Zabor maitaleen» topaketak egingo dituzte Bilbon

Hondakinen inguruan dauden alternatibak eta proiektuak azaltzeko, jardunaldiak antolatu dituzte Bizkaiko hainbat talde ekologistek. *Zarama Maitaleen XVII. Topaketak* urriaren 31n hasiko dira, eta azaroaren 3a arte iraungo dute. Mahai-inguru eta hitzaldi guztiak Begoñako basilikako gogartetxean izango dira. Bobby Galdos Basauriko Sagarrak talde ekologistako kideak esan zuenez, zaborren inguruan dauden alor guztiak batzen ahalegindu dira. Horrela, zaborra birziklatzen urte asko daramaten pertsonak eramango dituzte. Xabier Arrieta Jaurlaritzako hondakinen zuzendaria ere mahai-inguru batean izango da.

rialak alferrik galtzea». Izan ere, Ekologistak Martxan-ek eta Rezikletak pentsatzen dute hondakin organikoak konposta egiteko erabili daitezkeela.

Horren harira, Alcantarak eskatu zien administrazioei hondakin organikoak biltzeko ontzi bereziak ipintzea herrietan eta hirietan. «Udal batzuk egin dute, eta konturatu dira hori egin da hondakin guztien %60 birziklatzera heltzen direla».

aekeguna
Bilbo • Santutxu 2002

Egun osoan zehar musika:
Piztiak, Kuraia, Zea Mays, Anje Duhalde, Euritan blai,...
Umeentzat:
Betizu, pailazoak, puzgarriak, gargantua,...

2002

1988

urriak 27

metroz metro, beti euskaraz
autobusak abiatzeko prest! galdetu zure euskaltegian